



Zierbena famatua da mariskoarengatik, bereziki hau bezalako nasetan arrantzatutako txangurro eta neko-rengatik; malekoiko moilan daude nasak.

Zierbena es famosa por su marisco, en particular centollas y nécoras pescadas con nasas como éstas, que se encuentran en el muelle del malecón.

## 2. ZIERBENA.

Ibaizabalen estuarioko kanpoko ezkeraldea bezala (Abra), Zierbena ere oso eraldatuta geratu da superportuko obrak direla medio. Lehen Abrako tartetxo bat zen, arrantza-portu txiki eta tipikoa, oso famatua harrapatzen ziren itsaskiengatik: buiak, txamarrak... Kala txiki baten babesean eraiki zen, Serantes mendiko itsaslabarren eta Luzero lurmuturraren artean. Oso liteke erromatarrek berek ere kala hau erabili izana inguruko mineralak ustiatzeko.

Gaur, ordea, aldatuta du fisionomia: erabat berriturik, superporturako errepideak itxita dauka Zierbenako portua Luzero lurmuturreko dikearen aldean. Sartzeko eraiki diren bi ahoen artean, eta portura begira, hondartzatxo artifical bat egin da, igarobideari eusten dion murrak babestua. Harea berritu egiten dute aldizka. Dike eta kai berri guztietan agertu da dagoeneko itsasertzeko zona-zioa.

Zierbenako senaia naturala aspaldi desagertu zen arren, badugu marearteko haitzetako faunaren berri: fauna ohi-koa zen ur geza jasotzen duten espazio ertaineko arroketan. Halaxe adierazten zuten hango ostrek.



## 2. ZIERBENA.

Junto con toda la margen izquierda del estuario exterior del Nervión (El Abra), Zierbena es una de las zonas más modificadas en el proceso de construcción del Superpuerto. Antes era un resto del Abra natural: un pequeño y típico puerto pesquero famoso por su marisco: nécoras, bueyes..., construido al abrigo de una pequeña cala en los cantiles del monte Serantes y protegido por la punta Lucero. Es muy probable que esta cala fuera aprovechada ya desde tiempos romanos, en relación con la explotación del mineral de la zona.

Hoy se ha cambiado su fisionomía: el puerto de Zierbena, totalmente remozado, tiene su salida cerrada por la carretera de servicio a las instalaciones del superpuerto en su zona del dique de Punta Lucero, y el paso se realiza por dos bocanas entre las cuales y de cara al puerto, al abrigo del muro que soporta al vial, se ha construido una pequeña playa artificial cuya arena se renueva periódicamente. En todos estos nuevos diques y rompeolas se ha establecido ya una clara zonación litoral.

Hay datos de la fauna recogida en el roquedo intermareal de la ensenada natural de Zierbena, ahora desaparecida. Se encontró una comunidad típica de sustrato duro de exposición media y con aportes de agua dulce, como demostraba la presencia de ostras.

Hondartzatxo artifical txikia, duela urte gutxi batzuk egindakoa. Portu aldean dago; bainatzeko lekua buia batzuekin mugaturik dago. Elatuek eta mareek harearen zati handi bat erretiratzeko dute, eta aldizka berritu behar da.

La pequeña playa artificial construida hace unos años. Situada en zona portuaria, la de baños se delimita con unas boyas. El oleaje y las mareas retiran gran parte de la arena, que tiene que ser repuesta periódicamente.



Zierbenako portua, gaur egun /  
El puerto de Zierbena, hoy



Bola hondartza eta marearteko  
harrizko zabalgunea. Hondartza  
txiki hau eta Areetakoa (Getxo)  
baturik zeuden lehen, Zugatzarteko  
pasealekua eraiki aurretik.

Playa de La Bola y rasa rocosa inter-  
mareal. Esta pequeña playa y la de  
Las Arenas estaban unidas antes de  
la construcción del paseo de  
Zugatzarte.